

Zibersegurtasun arloko asmo-adierazpena

Nortegas Energía Distribución, SAUK, NED España Distribución Gas, SAUK, NED Suministro GLP, SAUK, Nortegas Energía Grupo, SLUK eta Nortegas Green Energy Solutions, SLUK

energia-sektorean diharduten enpresa gisa, zibersegurtasuna haien jardunerako eta konpainiaren zein bere bezeroen datuak eta aktiboak babesteko ezinbesteko elementua dela uste dute. Horrenbestez, haien ustez funtsezkoa da azpiegitura eta sistema guztiak babesteko Segurtasun Politika eraginkorra izatea. Hori dela eta, zibersegurtasun arloko jarduketa-printzipio hauek ezarri dituzte eta haien gaineko ardura hartu dute. Hala, printzipio horiek betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzeko konpromisoa hartu dute.

1. Babestu

Informazioaren eta Industria Kontrolerako Sistemen konfidentzialtasuna, integritatea eta erabilgarritasuna babesteko neurriak hartzea, horiek direlarik Informazioaren Segurtasunaren eta Industria Segurtasunaren oinarritzko hiru elementuak.

2. Kontzientziatu

Enpresako langileak prestatzea, informatzea eta sentsibilizatzea, haien ekintzek konpainian eta konpainiaren bezeroengan izan dezaketen eraginaren jakitun izan daitezen, zibersegurtasunaren gaineko kontzientzia sustatuz.

3. Bete

Konpainiaren zibersegurtasun arloko araudiak eta legeria zorrotz betetzea eta jarrera hori sustatzea konpainiaren jarduera guztietan, enpresak egokitzen dituen gainerako eskakizunak betetzeaz gain.

4. Hobetu

Konpainiaren jardueretan etengabeko hobekuntza sustatzea zibersegurtasun arloan, hobetzeko helburuak ezarri, beharrezko ikasketa-tresnak eskainiz, *partnership* egokiak garatuz eta konpainiaren baliabideak aintzat hartuz, zibersegurtasun arloan etengabe aldatzen diren beharizanetara eta mehatxuetara azkar egokitzeko.

5. Bermatu

Zibersegurtasun arloko auditoretzak egitea, ikuskapenerako tresna gisa, arlo horretan ezarritako baldintzen eta kontrolen kalitatearen betetze-maila ebaluatzeko.